

GAKO EKONOMIKOAK

- Kutsatzeak berragertzeek eta datu ekonomiko okerrek pisu handia dute merkatuaren sentimenduan.
- Eraitza desberdinak munduko burtsa indizeetan, zalantzek eta enpresa emaitzen aurkezpenek baldintzatuta.
- Errenta finkoan kalitatea bilatzea, zeinak zorraren errentagarritasuna hiru hileko minimoetara bultzatzen duen. Europako periferikoen primak jaitsi egin dira berreskuratzeko funtserako lortutako adostasunarekin.
- Euroa bi urteko maximoan dolarraren aurka. Dolarraren ahultasunak petrolio 43\$/upelera arte eraman du.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Espero zen bezala, uztailak agerian utzi du pandemiak bigarren hiruhilekoaren BPGn izan duen kalte ekonomikoak. AEBk aurreko erregistro guztiak hautsi ditu. Aldi horretan, urteko tasa %32,9 jaitsi baita. Eurozonako ekonomiak %12,1eko jaitziera izan du hiru hilabetetan eta Espainiako erorikoa izan da handiena (%18,5). Txarrena igarota, jarduerara itzuli ondoren eta munduko ekonomia gehiena jardunera itzulita, gaixotasuna hobeto kontrolatzeak eta politika ekonomikoaren laguntzak itxaropena ematen du ekonomia "V" forman berreskuratzeko. Halere, badirudi hori zalantzan jarri beharra dagoela AEBko eta Latinoamerikako koronabirus kasu berrien kopuru gero eta handiagoa ikusita, eta Europako zein Asiako etengabeko agerraldiak direla eta. Panorama hori izanik, presioak gero eta handiagoak dira zerga pizgarriak hartzeko. Zentzu horretan, Estatu batuetako gobernuak familiei zuzenean laguntzeko bilioi 1 dolarreko plan pizgarri berri bat ateratzeko jarraitzen du negoziatzen, presidenteak birusaren inguruko komunikazio estrategia aldatzea erabaki duen unean (eguneroko prentsaurrekoetara itzuli da eta orain maskararen erabilera defendatzen du), azaroko hauteskondeei begira babesak galtzen ari zela ikusita. Europak, bestalde, 750.000 milioi euroko akordio historikoa lortu du, blokearen berreskuratze ekonomikorako, proiektu komunarentzat urrats handi bat izanik. "Gartxu" eta "Mediterraneoko taldearen" arteko aldeak mailaguen aurreko subsidioen ratioa nabarmen jaitsez eta "laguntzak" jasotzen dituzten herrialdeetako egituren hainbat erreforma barneratuz konpondu dira. Gainera, moneta politikaren eremutik, ekonomiari arma guztiakin laguntzeko asmoa dagoelaren diskurtsoarekin jarraitzen dute, FEDek azken bileran gogorarazi duen bezala, enplegu datuen joera positiboa hozten ari zela hauteman ondoren. Bestetik, murrizketak kendu ondoren ikusi den berrakibazioak beste hainbat oztupo aurkitu ditu bidean, AEBren eta Txinaren arteko harremanen hondaketa berria, esaterako. Tentsioa maila teknologikoan oinarritzen da nagusiki. AEBk TikTok aplikazio txinatarra saltzeko ari da presionatzen, Microsoftek ere nahi duena, eta AEBk Houstoneko Txinako kontsulatuari itxeko agindua eman zion, espioitza salaketengatik. Azkenik, badirudi albiste onak iristen ari direla Covidaren aurkako bakunaren inguruan. Konpainia batzuk adierazi dutenez lehenengo datuak itxaropentsuak dira, gutxienez udazkenera arte jakingo ez dugun arren arrakastatsua izan den ala ez.

ERRENTA ALDAKORRA

Zalantza areagotzen ari den ingurune honetan, errenta aldakorrek merkatuek emaitza oso desberdinak utziko dituzte uztailan. Europako indizeak berriz ere ezkorrak bihurtu dira hildaren azken txanpan, gertatzen ari diren Covid-19 berragertzeen, enpresen datuen eta datu ekonomikoaren ondorioz, amerikarrek oso modu baikorrean itxi dute, konpainia teknologikoen eta komunikazioko konpainien emaitzen ondorioz, zeinak 2T2Orako balioetsitako irabaziak gaitzitu zituzten. Partikularrek eta bi urte baino gutxiagoko enpresen digitalizazioa azeleratu dutela berresten dute zifrek, konfinamenduak eta telelanaren hedapenak lagunduta. Big Tech direlakoek (Facebook, Apple, Amazon, Microsoft eta Google) S&P 500 amerikar indizearen barruan eragindako ponderazio garrantzitsuak (%23,47 kapitalizazioagatik) hilabete hau %5 baino gehiagoko aurrerapenarekin itxia ahalbidetu du. Halaber, Nasdaq zerbitzu teknologikoa berak, %7 baino gehiago lortu du. Atlantikoaren beste aldean, Eurozonako burtsaren indizea, Eurostoxx 50, %1,85eko erorikoarekin bukatu da, bankuen eta autoen sektoreak zigortuta gehienbat. Bereziki, Alemaniako Daxa salbatu egin da eta nahiko lau itxi du. Aldiz, Ibxek %4,9 galdu du, turismoaren eragin handiena izateagatik, herrialdeen artean mugikortasuna mugatzen hasiko direnean berriz ere, koronabirus agerraldi berriak igo ahala. Gainerako merkatuetan, Japoniak ere negatiboa itxi du, %2,5 baino gehiagoko jaitzierarekin, eta emergenteen indize globalak, aldiz, %8ko dolarraren balioa galtzeari onura ateratzen ari zaiena.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	6.877,40	EUR	%-4,90	%-27,98
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.174,32	EUR	%-1,85	%-15,24
S&P-500	AEB	3.271,12	USD	%5,51	%1,25
DOW JONES	AEB	26.428,32	USD	%2,38	%-7,39
NASDAQ 100	AEB	10.905,88	USD	%7,37	%24,88
NIKKEI-225	JAPONIA	21.710,00	JPY	%-2,59	%-8,23
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.078,92	USD	%8,42	%-3,21
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	199,04	EUR	%-0,57	%-7,23

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

AEBren eta Europaren ekonomia berriz ere espero den ekonomia kontrakzioak, kutsatze berriekin batera, inbertitzaileei berriz ere errenta finkoko posizioak berreskuratzeko eragin du, kalitatearen bila. Gainera, BCEren errotketek eta FEDaren jardueraren sendoenen ikuspegiak zorraren errentagarritasuna indarrez erortzea eragin du uztailan. Hortaz, 10 urteko zor amerikarra % 0,53ko mailan itxi da, eta alemana, epe berean, %0,52rekin, bi-hiru hilabeteko minimoak. Bestetik, zor periferikoak bere errentagarritasunak ere erlaxatu ditu Europako akordioaren eskutik. Horrela, Espainiako bonua 10 urtera, zeina hildaren hasieran %0,47koa zen, %0,34an bukatu zen. Bestetik, kalitate txarragoko errenta finkoan ere sartu da dirua, High Yield delakoa, zeinak oinarritzko 6 puntu galdu dituen hilean zehar.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,46	-0,05	-0,08
	6 HIL.	-0,41	-0,12	-0,08
	12 HIL.	-0,33	-0,13	-0,09
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,71	-2,60	-11,20
	5 URTE	-0,72	-2,40	-24,80
	10 URTE	-0,52	-7,00	-33,90
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,40	0,90	-1,60
	5 URTE	-0,21	-7,20	-13,40
	10 URTE	0,34	-12,70	-12,80

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Euroko gorantz igotzen jarraitu du dolarrarekiko, Europaren bidearen eskutik, zerga terminoen kohesio handiago baterantz. Uztailaren bukaeran, bi urtetako maximoa berritu da eta %5 sendoago bukatu du, 1,19\$/eurotan. Bestetik, Amerikako dibisak ez du unerik onena bizi, beste dibisa nagusiekiko balioa galdu baitu AEBren arazoak areagotzearen ondorioz: birusaren kontrola eta ziurgabetasun politikoa, alegia. Lehengai dagokionez, urrea maximo historikora iritsi da, 2.000\$ ingurura, banku zentralen jarduerak sortzen duen likidezia ugartasunaren eta babes aktiboaren kalitatearen ondorioz. Petrolioak ere dolarraren erorikoari ateratzen dio onura, eta pandemiaren inguruko berriei adi jarraitzen dio. OPEP-aren aurreikuspenen arabera, ekoizpenaren mozketei bukaera eman ahal izango zaio eta abuztuan areagotuko litzateke.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg